

PILOTA


Pilotari guztiak Altirekin

Patxi Eugi nafarrak, berriz, akordio bat lortuko du Asegarcerekin

labetetako egonezaren ondoren, badirudi zenean konponbidea. Mari Zezeaga, Jokin Zezeaga, Oskar Lasaren eta Oskar Lasaren pilotari ohien auziak. Atzo atzaldean Zezeaga, Zezeaga eta Lasa III.a, Juan Carlos Altirekin bildu ziren akordioa zehazteko. Akordioa, Eugik kontratua onartu eta klausula bat erabiliko du Asegarcera joateko.

OLASKOAGA / DONOSTIA

ze Mari Zezeaga, Jokin Zezeaga eta Oskar Lasaren pilotari ohien auziak. Atzo atzaldean Zezeaga, Zezeaga eta Lasa III.a, Juan Carlos Altirekin bildu ziren akordioa zehazteko. Akordioa, Eugik kontratua onartu eta klausula bat erabiliko du Asegarcera joateko.



Altirekin joatea zen aukera bakarra Oskar Lasaren ustez. A. GILLENIA

ko. Horrela, Eskutaldea enpresa desagertzekotan dago. Bergarako frontoiaren ustiakuntza bere esku badu ere, pilotaririk gabe «ezer gutxi egin daiteke» aitortu du Fernando Dublangek.

Beraz, pilotariei Altiren proiektuarekin bat egitea baino ez zaie gelditu. Nafarroako Lashoa enpresa hor zegoen, baina enpresaren berri laster eman bazen, berehala ikusi da ez daukala zer eginik esku pilota profesionalaren munduan. Gauzak horrela, Asegarcera bakarrik gelditu da Altirekin batera. Egia esan Altik Asegarcerekin dituen konpromezuekin bilbotarrek beren esku monopolioa izango dutela dirudi, nahiz eta Altik behin eta berriz aipatu autonomia dela. Pilotariek ez dute begi onez

ikusten monopolioa, esku pilotari eta pilotariei batez ere kalte egingo dielako.

Joxe Mari Zezeaga, Uberako atzelaria, iritzi horretakoa da «bi enprekin lehiakortasuna gordetzen delako. Txapelketak antolatzeke orduan, enpresa bakarra egoteak ez dio gardetasun handirik ematen». Oskar Lasaren ustez «txarra» da Asegarcerekin monopolioa. «Nik nahiago nuke bi enpresa egotea, nahiz eta Juan Carlosek (Alti) kontrakoa esan» dio Oskar Lasak.

PATXI EUGI ASEGARCERA Patxi Eugik datorren asteartean sinatuko du Asegarcerekin. Empresas Unidaseko pilotari ohiek Juan Carlos Altiren proiektuarekin egin dute

JAIALDIAK

Gaurko partiduak

GETXO. 19.00. Afizionatuak: Zarra - Jesus / Santarrita - Zurbano. Lehen Mailako finalerdia: Isusi I - Torre / Ziskar II - Juan Pablo. Bigarren Mailako finalerdia: Urkijo - Nuñez / Ropero - Garma II.

GERNIKA. 17.00. Bilbao / Azanza. Kontinente Arteko Txapelketa: Uriarte - Osa / Baronio - Atain. Egi-guren II - Unanue / Mayo - Arkarazo.

PLENTZIA. 22.30. Madariaga - Fundazuri / Etxano - Aldazabal. Bereikua - Felix / Konpa - Aranburu.

GALARRETA. 16.00. Altuna II - Etxeberria II / Zubeldia II - Soto. Altuna - Agerre / Ezkurra - Etxeberria. Urretabizkaia I - Iriarte II / Lezea - Auzmendi. Ollo - Lizaso / Arregi - Imaz.

EUSKAL. 16.00. Egialde - Mendizabal / Aizpurua - Adin. Matxin II - A. Lekunberri / Elizalde II - Aizpuru. M. Lekunberri - P. Lekunberri / Noain - Etxabe. Odriozola - Astrain / Iñigo - Zestau II.

bat eta Agoizkoak Bilboko enpresa aukeratu du hurrengo urteetarako. Eugik Empresas Unidasekin sinatu zuen kontratua bazegoen klausula bat adierazten zuena enpresa apurtuz gero Asegarcera joango zela.

Eugik ez zuen denbora gehiago itxaroten egoteko asmorik eta berarekin batera Unidaseko auzian zeuden pilotariek Altirekin akordioa lortu ondoren, nafarrak Asegarcera joatea erabaki du. Eugik berak aitortu zuenez, «beti Asegarcera joateko asmoa izan dut. Altiren proiektua ez zitzaidan interesatzen». Iñigo Salbideak —Asegarcereko gerentea— ez zuen albistea baieztatu nahi izan, baina Eugiren kontratua dagoen klausula erabil daitekeela gogorarazi zuen.

Kontinente arteko txapelketako partiduak Gernikan eta Markinan

R.B. / BILBO

Kontinente arteko zesta txapelketako hiru partidu jokatuko dira asteburu honetan Gernika eta Markinako frontoietan. Gaur arratsaldean Katxin Uriarte eta Aitor Osa, Baronio eta Josu Mugartegi 'Atainen' aurka ariko dira. Azken bikote hau gaur galtaile izanez gero finala jokatzeke aukera barik geratuko litzateke.

Rekalde-Barrondo eta Jauregi-Goitia ariko dira nor baino nor igande arratsaldean Markinako frontoian. Mexikotik etorritako pilotariek irabazi egin zieten Baronio eta Ataini. Jauregik eta Goitiak, ordea, galdu egin zuten Mitxelena eta Aranbururen aurkako norgehiagoka. Azkenik, astelehenean, partidu handia izango da Gernikako Jai Alain. Orain arte ezin hobeto ari diren Mitxelenak eta Aranburuk Konpa eta Felix izango dituzte aurkari.

ERREMONTETAKO TXAPELKETAKO ZOKETA

Herene-gun arratsaldean egin zuten Donostian, Galarretan jokatuko den buruz buruko txapelketaren zozketa. Bingo Londresek babes-tuta. Abuztuaren 3an hasiko da txapelketa, eta bertan sei pilotarik hartuko dute parte, bi multzotan banatuta. Horrela geratu ziren multzoak: Angel Lekunberri, Agerre eta Matxin A multzoan; Aizpuru, Martin Lekunberri eta Ezkurra B multzoan. Multzo bakoitzeko bi lehenak pasatuko dira finalerdietara. Finala irailaren 3an izango da.

gunkaria

TELEKOMUNIKAZIOAK

BIHAR, IGANDEA, GEHIGARRI BEREZIA

Plentzia eta Teknologia gehigarriak